



EBAZPENA, 2026ko ekainaren 9koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko otsailaren 24ko Ebazpena, zeinaren bidez argitara ematen baita EAeko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten irakaskuntza-kidegoetako karrerako funtzionarioen estatu-mailako 2024/2025 lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko ebazpena eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa.

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urriaren 25eko Aginduaren bidez (2024ko azaroaren 4ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen.

Luis Miguel García Santurtun jaunak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen goian aipatutako ebazpen horren aurka, eta 5.5 apartatua baloratzeko eskatu zuen, ingeleseko B1 tituluari buruzko puntu 1 kontatu ez zitzaielako.

Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2025eko abenduaren 17ko Ebazpenaren bidez, baietsi egin zen jarritako gora jotzeko errekurtsua, honako hau dioena:

«EBAZTEN DUT BAIESTEA Luis Miguel García Santurtun jaunak Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko otsailaren 24ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua. Ebazpen horren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleen, desagertzear dagoen Lanbide Heziketako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikarien eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoetako karrerako funtzionarioen estatu-mailako 2024/2025 lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta merezimenduen baremoak, eta 1,0000 puntu aitortzea 5.5 apartatuan».

Hala, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko otsailaren 24ko Ebazpena aldatu behar da. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da estatu-mailako 2024/2025eko lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta onartutakoen merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa. Horrek esan nahi du 5.5 azpiapartatuan Luis Miguel García Santurtun jaunak 1,0000 puntu dituela eta 29,2916 puntu osorik.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko otsailaren 24ko Ebazpena, Luis Miguel García Santurtuni dagokionez. Ebazpen horren bidez argitara eman zen estatu-mailako 2024/2025 lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta onartutakoen merezimenduen baremoa. Aldaketa honela geratuz:

- 5.5 azpiatalean 1,0000 puntu dagozkie.
- Guztizko puntuazioan 29,2916 puntu dagozkie.

Bigarrena.- Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko 1. Epaitegiari dagokio ebazpena betearazteko izapideetan sor litekeen guztiaz arduratzea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 9a

UNAI NIETO MARIJUAN
Langileriaren Kudeaketako zuzendaria